


EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA



BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Itundutako posta-ordaina: 8/98

Internet

Franqueo concertado: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, 1
Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

www.euskadi.net

Administración: c/ Donostia-San Sebastián, 1
Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

2833

AGINDUA, 2005eko maiatzaren 25ekoa, Kultura sailburuarena, entitate pribatuetan eta zuzenbide publiko korporazioetan euskara-planak garatzeko edota koordinazio-jarduerak aurrera eramateko dirulaguntzak emateko modua arautzen duena.

Euskararen erabilpena arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak bere 5. artikuluan xedatzen duenez, euskal herritarren funtsezko hizkuntza eskubideetako bat lanbidean, lanean eta politika eta sindikaritzan euskaraz aritzea da; herri-aginteen zeregina da eskubide hori eraginkorra eta benetakoa izan dadin euskararen erabilera bermatzea Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAEren) eremuan.

Lege beraren 26. artikuluan xedatu denez, Euskal Autonomia Erkidegoko agintariek euskara gizarte-bizitzaren alor guztietan erabil dadin sustatzeko neurri egokiak hartu eta beharrezko baliabideak jarriko dituzte, herritarrei merkataritza, kultura, bazkun, kirol, erlijio eta beste nolanhiko ekintzabideetan euskaraz ari daitezen bideak eskaintzeko.

Bestalde, 1999ko abenduaren 10ean Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia berretsi zuen. Planaren hurrengo hamar urte-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

2833

ORDEN de 25 de mayo de 2005, de la Consejera de Cultura, por la que se regula la concesión de subvenciones para el desarrollo de planes de euskera y actividades de coordinación en entidades del sector privado y en corporaciones de derecho público.

Tal y como dispone la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, en su artículo 5, uno de los derechos lingüísticos fundamentales que se reconocen a los ciudadanos/as del País Vasco es el de desarrollar actividades profesionales, laborales, políticas y sindicales en euskera, y corresponde a los poderes públicos garantizar el ejercicio de estos derechos en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a fin de que sean efectivos y reales.

El artículo 26 de la misma Ley dispone que los poderes públicos vascos tomarán las medidas oportunas y aportarán los medios necesarios para fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, a fin de posibilitar a los ciudadanos/as el desenvolvimiento en dicha lengua en las diversas actividades mercantiles, culturales, asociativas, deportivas, religiosas y cualesquiera otras.

Por otra parte, el Pleno del Parlamento Vasco, en sesión celebrada el 10 de diciembre de 1999, ratificó el Plan General de Promoción del Uso del Euskera. El re-

tako erronka nagusia belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara heldu-aroko eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegin eta gaztelania bezain baliozko egitean datza. Horretarako euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik harantzago eraman eta beste erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetara zabaltzea behar da, besteak beste, enpresa mundura. Gauzak horrela, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak enpresen esparrurako proposatu dituen neurriak dira, besteren artean, lantokietan euskararen aldeko proiektuak ezartzeko markoa definitzea, horretarako giza baliabideak nahiz ekonomikoak bideratzea eta lantokien tipologiaren arabera proiektuak diseinatzea eta gauzatzea.

Lantokien tipologia eta beharretara egokitu nahian Agindu honek entitateetako euskararen erabilera-planak hobetzea edota ugaltzea helburu duten koordinazio-jarduerak ere lagunduko ditu diruz.

Agindu honek arautzen duen deialdia pertsona juridiko pribatuei eta zuzenbide publikoko korporazioei zuzenduta dago. Azken hauei dagokienez, interesgarri irizten dira bai betebeharrak publikoak dituztelako eta baita muntazko lanbide zein ekonomi sektoretako pertsona eta entitateen topagune direlako ere.

Hori horrela, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.— Deialdiaren helburua.

1.— Diru-laguntza deialdi honen helburua sektore pribatuko entitateei eta zuzenbide publikoko korporazioei diru-laguntzak emateko modua arautzea da, entitateotan euskararen lehen erabilera-plana (aurrerantzean euskara-plana) egin, horren arabera 2005eko ekitaldirako begiz jotako kudeaketa-plana garatu edota euskararen erabilera entitateetan areagotzeko koordinazio-jarduerak aurrera eramateko.

2.— Euskal Autonomia Erkidegoko 2005eko Aurrekontu Orokorretan agindu honen helburu horretarako ezarritako atalean 1.118.522 euro aurreikusi dira. Kopuru hori xedapen gehigarriaren arabera gehitu egin daiteke. Diru-kopuru horretatik % 10 koordinazio-jardueretarako (5.3.h) erreserbatuko da. Diru-kopuru hori helburu horretarako osorik erabiliko ez balitz, koordinazio-jarduerak egiteko eskabide nahikorik ez dagoelako, erabili gabeko kopurua planen garapenerako erabili ahal izango da.

to principal del plan para los próximos diez años consiste en que los euskaldunes de las nuevas generaciones consideren el euskera tan útil y gratificante como el castellano en ámbitos específicos e importantes de su vida adulta. Para ello ha de ampliarse la oferta de los servicios en euskera y extender su uso a otros ámbitos además del escolar, y entre otros al ámbito empresarial. Siendo esto así, el Plan General de Promoción del Uso del Euskera propone varias medidas para el ámbito de las empresas, entre las que se encuentra la definición del marco apropiado para la implementación de proyectos a favor del euskera en los centros de trabajo, lo que hace necesario que se dispongan los recursos humanos precisos para ello y se diseñen y desarrollen los correspondientes proyectos de euskera en función de la tipología del centro de trabajo.

Con la intención de adecuarse a la tipología y las necesidades de los centros de trabajo la presente Orden subvencionará también las actividades de coordinación dirigidas a mejorar y/o acrecentar los planes de euskera de las entidades.

La convocatoria regulada por esta Orden está dirigida a personas jurídicas privadas y a corporaciones de derecho público. En lo que se refiere a estas últimas, el especial interés que presentan como destinatarias de la convocatoria viene determinado tanto por el hecho de que tengan encomendadas funciones públicas, como por constituir un cauce asociativo de personas y de entidades de sectores profesionales y económicos de relevancia.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo 1.— Objeto de la convocatoria.

1.— La presente convocatoria tiene por objeto regular la concesión de subvenciones a entidades del sector privado y a corporaciones de derecho público con el fin de que creen un plan del uso del euskera (en adelante plan de euskera) para la entidad, desarrollen durante el año 2005 el plan de gestión que consideren preciso y/o desarrollen actividades de coordinación para incrementar el uso del euskera en las entidades.

2.— Los recursos económicos destinados a la finalidad prevista en la presente Orden ascienden a 1.118.522 euros, con cargo a las partidas presupuestarias establecidas al efecto en los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco de 2005. Esta cantidad podrá aumentarse de acuerdo con la disposición adicional. De dicha partida se reservará el 10% para actividades de coordinación (5.3.h). Si dicha cantidad de dinero no se utilizase en su totalidad para el objetivo señalado, debido a no haber suficientes solicitudes para realizar actividades de coordinación, la cantidad de dinero sin utilizar se podrá utilizar para el desarrollo de planes de euskera.

2. artikulua.— Onuradunak.

1.— Indarrean dagoen legeriaren arabera, legez eratu eta dagokion erroldan inskribaturiko pertsona juridiko pribatuak eta zuzenbide publikoko korporazioak agindu honetan ezarritako diru-laguntzen jasotzaile izan daitezke.

2.— Herri administrazio batek edo gehiagok jarritako kapitala denetara entitatearen kapital sozial osoaren erdia baino gehiago duten entitate merkantilok deialdi honetatik baztertu egingo dira.

3.— Eskatzaileari diru-laguntza esleitu edota ordaindu ahal izateko, onuradunak Euskal Autonomia Erki-degoko Administrazio Orokorrak eta bere entitate autonomiadunek emandako antzeko diru-laguntzaren bat dela eta hasi eta oraindik tramitean dagoen itzultze edo zigortze jardunbidea bukatua izatea ezinbesteko baldintza da.

4.— Halaber, eskatzaileari diru-laguntza esleitzeko edota ordaintzeko, onuradunak zerga-zorrik ez daukela eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak kitatuta dituela egiaztatzea ezinbesteko baldintza da.

5.— Deialdi honetara ezin izango dira aurkeztu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean, sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penala jasotako pertsona juridikoak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea dela bide debeku horrekin zigortutakoak ere.

3. artikulua.— Diru-laguntzak jasotzeko baldintzak.

Agindu honetako diru-laguntzak jaso ahal izateko diru-laguntza onuradunek hurrengo baldintzok bete behar dituzte:

a) Entitateek euren jarduerak 7.3 artikuluan zehaztutakoaren arabera aurkeztu behar dituzte.

b) Euskara-plana eta bere inguruko ekintza guztiak ere euskaraz egin eta aurkeztu behar dira.

c) Diru-laguntzaren onuradunek Euskadin diharduten administrazio publikoekiko duten idatzizko ohiko harremanetan euskara erabiliko dute.

4. artikulua.— Kultura Sailaren aipamena.

Diru-laguntzaren jasotzaile direnek diruz lagundutako programa, proiektu edo jardueren ondorioz egingandako iragarki-txarteletan, argazkietan eta gainerako material idatzietan, entzunezkoetan edo elektronikoe-tan Kultura Sailak eskainitako babesa adierazi beharra dute.

5. artikulua.— Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

Artículo 2.— Beneficiarios.

1.— Podrán ser beneficiarias de las subvenciones reguladas por la presente Orden personas jurídicas privadas que se hallen constituidas legalmente con arreglo a la legislación vigente e inscritas en el registro correspondiente y las corporaciones de derecho público.

2.— Quedan excluidas las entidades mercantiles en cuyo capital sea mayoritaria la participación de una o varias administraciones públicas.

3.— La concesión y, en su caso, el pago de la subvención a la entidad beneficiaria quedará condicionada a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

4.— Será requisito para la concesión y, en su caso, el pago de la subvención, la acreditación por parte de los beneficiarios del cumplimiento de las obligaciones tributarias y de las obligaciones frente a la Seguridad Social.

5.— No podrán concurrir a la presente convocatoria de subvenciones las personas jurídicas sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo ni las sancionadas con esta prohibición en virtud de la ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Artículo 3.— Requisitos para acceder a las subvenciones.

Para poder tener acceso a las ayudas, los beneficiarios deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) La entidad solicitante deberá presentar las actividades tal y como se recoge en el artículo 7.3.

b) El plan de euskera, así como todas las actuaciones derivadas del mismo, han de estar realizadas íntegramente en euskera.

c) Las entidades beneficiarias de las ayudas, utilizarán el euskera en las relaciones escritas que mantengan con carácter habitual con las administraciones públicas cuyo ámbito de actuación sea Euskadi.

Artículo 4.— Mención del Departamento de Cultura.

Las entidades beneficiarias de subvención deberán incluir en todos los carteles anunciadores, fotografías y demás materiales gráficos, sonoros y electrónicos realizados como consecuencia del programa, proyecto o actividad subvencionados, la mención del patrocinio del Departamento de Cultura.

Artículo 5.— Actividades subvencionables.

1.– Agindu honetako diru-laguntzak ondorengo ekintzetarako erabiliko dira:

1) Entitateak lehen aldiz euskara-plana egiteko;

2) Euskara-planei begirako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren iritziz bideragarri diren koordinazio-jarduerak aurrera eramateko;

3) Aurtengo kudeaketa-planean aukeratutako helburuak betetzeko beharrezkoak diren bitarteko edo ekin-tzetarako.

2.– Aipatutako jarduerok 2005eko urtarrilaren 1etik 2005eko abenduaren 31ra bitartean egindakoa izan behar dute.

3.– Diru-laguntzagai ondorengo eremuak izango dira:

a) Lehen euskara-plana: deialdi honetan lehenengoz parte hartzen duen entitateak hiru urterako plana egiteko diru-laguntza.

b) Itzulpenak: idatziz egindako testuak (web-orriak barne) euskaratu, euskarazkoak egokitu eta entitatearen jarduerarekin zerikusi zuzena duten terminologia lanak garatzea. Zuzenbide-ordenamenduaren arabera Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharrekoak diren testuak ez dira diru-laguntzagai izango.

c) Batzarretako aldi bereko itzulpen-zerbitzua eta horretarako baliabideak erostea.

d) Trebakuntza: planaren helburuekin zerikusi zuzena duten langile euskaldunen banakako edo taldeakoko hizkuntza-trebakuntza. Entitateak diru-laguntza eskuratu ahal izateko saioetan landu beharreko edukirik edo curriculum-a aurkeztu behar da. Bestetik, saio bakoitzak gutxienez ordu bete eta, guztira, gutxienez 20 ordu irauten duten kasuak lehenetsiko dira. Era berean diruz lagunduko da entitatearen euskara-planaren koordinatzailearen euskararen normalkuntzaren inguruko trebakuntza.

e) Software-a: lana euskaraz egin ahal izateko aplikazio informatikoak erosi, garatu, edota erositako edota entitatean bertan garatutako euskaraz lan egiteko egokitzapen edo moldaketa.

Merkatuan zabalkunde handia duten produktuen lokalizazioa, hots, entitate batek baino gehiagok euskara hutsez erabili ahal izateko beste hizkuntzaren batean saltzen diren itzulpen eta egokitze lanak ez dira diru-laguntzagai izango.

f) Plangintzaren jarraipena: Euskara-batzordearen jarduna.

g) Plangintzaren ebaluazioa: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak banatutako aplikazio informati-

1.– La entidad beneficiaria destinará las subvenciones previstas en esta convocatoria a financiar las siguientes actividades:

1) Creación del primer plan de euskera de la entidad;

2) Actividades de coordinación relativas a los planes de euskera que la Viceconsejería De Política Lingüística estime viable;

3) Los medios o actividades necesarios para el cumplimiento de los objetivos marcados en el plan de gestión de este año.

2.– Las actuaciones objeto de subvención deberán realizarse entre el 1 de enero de 2005 y el 31 de diciembre de 2005.

3.– Se podrán subvencionar las siguientes actividades:

a) Primer plan de euskera: subvención para que las entidades que se presentan a esta convocatoria por primera vez creen su primer plan trienal.

b) Traducciones: traducciones al euskera de textos escritos (incluidas páginas web), adaptaciones de textos en euskera y trabajos de terminología necesarios para la actividad de la entidad, exceptuando los textos que, de acuerdo con el ordenamiento jurídico, deben editarse en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) Servicio de traducción simultánea y la compra de recursos para dicho servicio.

d) Capacitación: capacitación individual o colectiva del personal vascohablante directamente relacionado con el plan de euskera. Para que la entidad pueda acceder a estas ayudas, deberá presentar los contenidos o curriculum que se emplearán en los programas. Tendrán prioridad los programas cuya duración supere las 20 horas y cuyas sesiones sean de, al menos, una hora. De igual modo se subvencionará la capacitación en materia de normalización lingüística del coordinador del plan de euskera de la entidad.

e) Software: la adquisición o desarrollo de aplicaciones informáticas necesarias para realizar el trabajo en euskera y la adaptación o adecuación para su uso en euskera de las aplicaciones adquiridas o desarrolladas por la entidad.

Las localizaciones de productos con amplia difusión en el mercado, es decir, la traducción o adaptación al euskera de aplicaciones en otras lenguas para el uso de más de una entidad no serán subvencionables.

f) Seguimiento del plan: el trabajo desempeñado por la Comisión de Euskera.

g) Evaluación del plan: la cumplimentación del apartado evaluación de la aplicación informática preparada

koan ebaluazioa atala osatzea edota plangintzaren ebaluazioa burutzeko txostenak egitea.

h) Koordinazio-jarduerak: entitate desberdinen arteko koordinazio-jardueren mamikuntza. Entitate desberdinetako euskara-koordinatzaileen, euskara-teknikarien edota gainerako lankideen arteko jarduerak eta bilerak antolatzea, beti ere ekintzon helburua entitateetako euskararen erabilera-planak hobetzea edo ugaltzea denean.

6. artikulua.— Ebazteko prozedura.

1.— Lehiaketa bidez erabakiko da deialdi hau, hau da, aurkeztutako eskabideen arteko konparaketa egingo da eta, 11., 12. eta 13. artikuluetan finkatutako balorazio-irizpideak kontuan harturik, lehentasunak ezarriko dira; ondorioz, puntu gehien lortzen duten eskabideek jasoko dute diru-laguntza.

2.— Aurkeztutako proiektuak nahikoa ez badira, ez da programa honetarako esleitutako dotazio ekonomikoa agortu beharrik izango.

7. artikulua.— Eskabideak non eta nola aurkeztu.

1.— Eskabideak, entitatearen legezko ordezkariak sinatuta, Agindu honen eranskinen arabera eta bertan zehaztutako agiriekin batera aurkeztu behar dira. Eskabideak aurkezteko epea Agindua argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta azken eguna 2005eko uztailearen 7a da.

2.— Eskabidea eta gorago adierazitako dokumentu guztiak Kultura Saileko Euskara Planen Zuzendaritzari zuzenduko zaizkio, zuzenean Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailean (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) edo Bizkaiko (Bide nagusia, 85, 48011 Bilbao) edota Gipuzkoako (Andia 13, 20004 Donostia) lurralde-zerbitzuetan aurkeztuz edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein bidez.

Posta-bulegoetan aurkeztutako eskaerak kartazal irekian aurkeztu behar dira, posta-funtzionarioak, ziertapena egin baino lehen, data eta zigilua jar diezazkion.

3.— Jardueraren arabera aurkeztu beharreko agiriak:

a) Entitateek euskara-planaren aurtengo kudeaketa-plana garatzeko laguntza eskatzen dutenean, euskara-planaren egoeraren arabera honako hauek aurkeztu behar dituzte:

- Hiru urteko euskara-plana indarrean ez duten edota aurreko bi urteotan deialdira planik aurkeztu ez duten entitateek: hiru urteko euskara-plana eta 2005eko kudeaketa-plana;

por la Viceconsejería de Política Lingüística o la elaboración de informes para realizar la evaluación del plan.

h) Actividades de coordinación: la realización de actividades de coordinación entre distintas empresas o entidades. Organización de jornadas, reuniones u otro tipo de relaciones entre coordinadores, técnicos de euskera o el resto de compañeros de trabajo de distintas entidades, siempre que el objetivo de dichas actividades sea el mejorar o acrecentar los planes de euskera de las entidades.

Artículo 6.— Procedimiento de resolución.

1.— Esta convocatoria se resolverá por el procedimiento de concurso, esto es, mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de valoración fijados en los artículos 11, 12 y 13 realizándose las adjudicaciones correspondientes entre aquellas que hayan obtenido mayor puntuación.

2.— Si las solicitudes no fueran suficientes, no será preciso agotar la dotación económica asignada a este programa.

Artículo 7.— Presentación de solicitudes.

1.— Las solicitudes, firmadas por el representante legal de la entidad, y el resto de documentación deberán presentarse de acuerdo a los anexos de esta Orden. El plazo para presentar las solicitudes comenzará el día siguiente a la publicación en el BOPV de esta Orden y el último día para presentar las solicitudes será el 7 de julio de 2005.

2.— Las solicitudes y la documentación señalada anteriormente, dirigidas a la Dirección de Planes de Euskera del Departamento de Cultura, deberán presentarse en el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco (c/ Donostia-San Sebastián, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) o en los servicios territoriales de Bizkaia (Gran Vía, 85, 48011 Bilbao) o Gipuzkoa (Andia, 13, 20004 Donostia-San Sebastián) bien directamente o bien por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Las solicitudes enviadas por correo deberán presentarse en la oficina de correos en sobre abierto, con el fin de que sean datadas y selladas por el funcionario antes de ser certificadas.

3.— Documentos a presentar según la actividad:

a) Si se solicita subvención para desarrollar el plan de gestión de este año ha de presentarse lo siguiente dependiendo de la situación en que se encuentre el plan de euskera:

- Las entidades que no tienen plan de euskera en vigor y que no se han presentado a esta convocatoria los dos años anteriores: el plan trienal y el plan de gestión de 2005.

- Hiru urteko euskara-plana indarrean eta aurreko deialdiren batean aurkeztua duten entitateek: 2005eko kudeaketa-plana.

Hiru urteko euskara-plan eta kudeaketa-plan horiek aurkezteko bi bide daude aukeran:

- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak prestatutako ereduaren arabera aurkeztea (Planak eredu horren arabera aurkezteko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aplikazio informatiko bat prestatu du; ikus II. eranskina);

- Entitateak berak aukeratzen duen ereduaren arabera aurkeztea, paperezko eta informatikazko euskarrian, 2004. urteko ebaluazio-txostenarekin batera (bide hau erabiliz gero, planok gutxienez II. eranskinean eskatutako xehetasunak jaso beharko dituzte eta horrekin batera II. eranskinean bertan azaltzen den aplikazioaren bertsio laburtua; ikus II. eranskina).

Entitateak enpresa-talde bereko enpresen arteko bilerak edota harremanak kudeatzen dituenen, bere urteko kudeaketa-planean jarduera horietan euskararen erabilera areagotzekoak ere jaso ditzake.

b) Entitateek lehen euskara-plana prestatzeko laguntza eskatzen dutenean (5.3.a) diru-laguntzagaia, alegia, bi aukera dituzte:

- Planaren kudeaketarekin zerikusirik duen beste kontzeptuetarako diru-laguntzarik ez eskatzea, lehenengo urte honetan hiru urteko plana bakarrik prestatuz; horretarako eskabidearekin batera Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak banatzen duen aplikazio informatikoa aurkeztu beharko da bertan entitatearen oinarritzko datuak jasoz, eta 2005eko abenduaren 30erako hiru urteko euskara-plana (2006an jarriko da plan hori indarrean eta bertan zerrendatutako ekintzak hurrengo hiru deialdietan diruz lagundu ahal izango dira). Ikus II. eranskinean entitatearen oinarritzko datuak jasotzeko eta hiru urteko plana aurkezteko dauden aukerak.

- Honezaz gain, plan hori aurreko mamitzeko kudeaketa-plana garatzeko kontzeptuetako bat edo gehiagorengatik ere laguntza eskatzea. Kasu honetan artikulua honen a) idatz-zatian jasotako baldintza ohiko epean bete beharko da.

c) Euskararen erabilera entitateetan areagotzeko koordinazio-jarduera(k) garatzeko, 5.3.h) laguntza-kontzeptuari begira hain zuzen ere, jarduer(ar)en azalpen-txostena aurkeztu beharko du eskatzaileak. Txostenak honakoak jaso behar ditu gutxienez: koordinazio-jardue(ra)ren gaineko azalpena helburuak zehaztuz, koordinazio-jarduer(et)an parte hartzen duten entitateen zerrenda eta jardue(ra)ren iraupena.

4.- I. eranskinean aipatzen den dokumentazioaz gain, Euskara Planen Zuzendaritzak entitate eskatzaile

- Las entidades que tienen el plan en vigor y que ya se han presentado a la convocatoria anteriormente: el plan de gestión de 2005.

Existen dos modos de presentar el plan trienal y el plan de gestión:

- Presentarlos según el modelo preparado por la Viceconsejería de Política Lingüística (para presentar los planes según ese modelo la Viceconsejería de Política Lingüística ha preparado una aplicación informática; véase el anexo II);

- presentarlos según el modelo que elija la entidad, presentado tanto en formato informático como en papel, junto con el informe de evaluación del plan de gestión de 2004 (las entidades que opten por esta vía deberán recoger en sus planes al menos lo solicitado en el anexo II y adjuntarán la aplicación informática reducida detallada en el anexo II).

Cuando la entidad gestiona relaciones o reuniones entre las empresas del mismo grupo, puede recoger en el plan de gestión las actividades para el fomento del uso del euskera que realice.

b) Cuando se solicita la subvención para crear el primer plan de euskera (el concepto 5.3.a), las entidades tienen dos opciones:

- No pedir subvención para el resto de conceptos que guardan relación con el plan de euskera, preparando por lo tanto únicamente el plan trienal; para ello se deberá presentar junto con la solicitud la aplicación informática que ha preparado la Viceconsejería de Política Lingüística en la cual se deberán recoger los datos básicos de la entidad; y para el 30 de diciembre de 2005 el plan trienal (ese plan se pondrá en marcha en 2006 y las actividades en él detalladas serán subvencionables en las tres siguientes convocatorias). Véase en el anexo II las opciones para presentar los datos básicos de la entidad y el plan trienal.

- Otra opción es solicitar también subvención por algún concepto para desarrollar este año el plan de gestión. En este caso la condición a) de este artículo debe cumplirse en el plazo habitual.

c) Las entidades que soliciten subvención para llevar a cabo actividades de coordinación con el fin de fomentar el uso del euskera en las entidades (concepto 5.3.h), deberán presentar un informe explicativo. Dicho informe recogerá, al menos, lo siguiente: una explicación acerca de la actividad de coordinación explicando sus objetivos, la lista de las entidades que participarán en las actividades de coordinación y la duración de las actividades.

4.- La Dirección de Planes de Euskera podrá pedir a la entidad solicitante documentación adicional a la re-

leei informazio eta dokumentazio gehiago eskatu ahal izango die, aurkeztutako jarduerak hobeto baloratzeko.

8. artikulua.– Aurkeztutako eskabidean egindako akatsen zuzenketa.

Euskara Planen Zuzendaritzak aurkeztutako dokumentazioan akatsik dagoela edota agiriren bat falta dela ikusten badu, hamar eguneko epean akatsa zuzen dezala edota falta diren agiriak bidal ditzala eskatuko dio idatziz entitate interesdunari.

Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edota agiriak osatu ez badira, interesdunak eskaeran atzera egin duela ulertuko da eta Hizkuntza Politikarako sailburuordeak hori jasotzen duen ebazpena emango du, interesatuari jakinaraziko zaiona.

9. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Euskara Planen Zuzendaritzak kudeatuko ditu deialdi honetako diru-laguntzak.

10. artikulua.– Balorazio-batzordea.

1.– Aurkeztutako eskabideak aztertu eta baloratzeko, hurrengo kideek osatutako Balorazio-batzordea eratu da:

– Kultura Saileko Euskara Planen zuzendaria, Balorazio-batzordearen burua;

– Eusko Jaurlaritzako Lan eta Prestakuntza zuzendaria edo berak izendatutako ordezkaria;

– Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko ordezkaria, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak izendatutakoa;

– HABEko zuzendari nagusia;

– Kultura Saileko Euskara Sustatzeko zuzendaria;

– Hobetuz Fundazioko zuzendaria edo berak izendatutako ordezkaria;

– Euskararen Aholku Batzordeko kide bat, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatua;

– Euskara Planen Zuzendaritzako erabilera-planak sustatzeko arduraduna;

– Euskara Planen Zuzendaritzako teknikari bat. Idazkari lanak egingo ditu eta hitza izango du baina botoa ematerik ez.

2.– Balorazio-batzordeko kideen izenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jakinaraziko dira.

3.– Balorazio-batzordeak, agindu honen 11., 12. eta 13. artikuluetan ezarritako diru-laguntzak emateko eta zenbatekoa finkatzeko irizpideak kontuan izanik, Hizkuntza Politikarako sailburuordeari ebazpen-proposamena aurkeztuko dio.

cogida el anexo I para una mejor valoración de las actividades presentadas.

Artículo 8.– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

Si la Dirección de Planes de Euskera advirtiera en la solicitud o demás documentación presentada por la entidad solicitante la existencia de algún defecto o que la misma está incompleta, concederá un plazo de 10 días para que el solicitante proceda a su subsanación y presente correctamente los documentos.

Transcurrido dicho plazo sin haber procedido a la subsanación, el Viceconsejero de Política Lingüística dictará resolución de desistimiento en el procedimiento, que se notificará al interesado.

Artículo 9.– Órgano gestor de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Planes de Euskera la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente convocatoria.

Artículo 10.– Comisión de Valoración.

1.– Para el análisis y valoración de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de Valoración compuesta por los siguientes miembros:

– El Director de Planes de Euskera del Departamento de Cultura, presidente de la Comisión de Valoración.

– El Director de Empleo y Formación del Gobierno Vasco o persona en quien delegue.

– Un/a representante del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, designado por el Consejero de Industria, Comercio y Turismo.

– El Director general de HABE.

– La Directora de Promoción del Euskera del Departamento de Cultura.

– El Director de la Fundación Hobetuz o persona en quien delegue.

– Un/a miembro del Consejo Asesor del Euskera designado por el Viceconsejero de Política Lingüística.

– El responsable de fomento de planes de uso de la Dirección de Planes de euskera.

– Un/a técnico/a de la Dirección de Planes de Euskera, con voz y sin voto, que actuará en calidad de secretario/a.

2.– Los nombres de los miembros de la Comisión de Valoración se publicarán en el Boletín Oficial del País Vasco.

3.– Dicha comisión, atendiendo a los criterios de adjudicación y cuantificación de las subvenciones establecidos en los artículos 11, 12 y 13 de esta Orden, elevará la oportuna propuesta de resolución al Viceconsejero de Política Lingüística.

11. artikulua.– 2005eko kudeaketa-plana garatze-ko diru-laguntzak esleitzeko eta zenbatekoak finkatzeko irizpideak.

Diru-laguntzei buruzko ebazpen-proposamena egi-terakoan, Balorazio-batzordeak erabiliko dituen irizpideok hurrengoak izango dira:

1.– Euskaldunen ehunekoa entitatearen langileen artean: zenbat eta euskaldunago, hainbat eta puntu gehiago: 40 puntura arte.

Euskalduntzat hartuko dira gutxienez ondo ulertu eta hitz egiten dutenak. Horretarako, 86/1997 Dekretuak (EHAA: 1997/4/17) bere 13. artikuluan definitzen duen bigarren hizkuntza eskakizunaren ahozko trebetasuna hartuko da gidari.

2.– Planaren balioespena: 30 puntura arte.

Plana balioesteko Euskara Planen Zuzendaritzak idatzizko txostena prestatuko du. Txosten horrek ondo-koak hartuko ditu kontuan:

- Entitatearen egungo hizkuntza-errealitatetik abiatuta proposatzen diren helburuen lorgarritasuna;
- Helburu horiek betetzeko 2005eko kudeaketa-planean jasotzen diren neurrien eraginkortasuna;
- Neurrioren deskribapenaren zehaztasuna;
- Neurri horiek betetzeko jarritako diru- eta gizabaliabideen egokitasuna;
- Euskara-planak entitatearen duen errotze-maila (euskara-planen helburu nagusiak entitatearen plan estrategikoan edota entitateko kudeaketa-planean sartuta dauden; entitateak hizkuntza irizpideak zehaztuta edota euskararen kudeaketa-prozedurak definituta dituen eta horiek aplikatzen dituen);
- Aurreko urteko kudeaketa-planari buruzko ebaluazio-txostenetik eratorritako betetze-maila eta lortutako erabilera-maila.

Urteko kudeaketa-planaren eraginkortasun- nahiz zehaztasun-falta izanez gero, Balorazio-batzordeak bere esku izango du eskariak bazter uztea.

3.– Entitateko aurtengo kudeaketa-planaren ekin-tzetan zuzenean parte hartzen duen langile-kopurua: 20 puntura arte.

Zenbat eta langile gehiago izan eragindakoak eta entitatearen zenbat eta eragin handiagoa duten, orduan eta puntu gehiago emango da.

4.– Entitatea (edota, hala legokiokeenean, entitate horren lantoki jakina) kokatuta dagoen udalerriko elebidunen ehunekoa: horretarako Eustatek argitaratutako azken Biztanleria eta Etxebizitza Estatistika edo Erroldako datuak erabiliko dira. Zenbat eta euskaldunago, hainbat eta puntu gehiago: 10 puntura arte.

Artículo 11.– Criterios para la adjudicación y cuantificación de las subvenciones para desarrollar el plan de gestión de 2005.

Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las subvenciones concedidas, la Comisión de Valoración tendrá en cuenta los siguientes criterios:

1.– Porcentaje de vascohablantes entre los trabajadores y trabajadoras de la entidad: se obtendrán más puntos cuanto más vascohablantes haya: hasta 40 puntos.

Será considerado vascohablante el personal que, al menos, comprenda y hable bien la lengua. A estos efectos, se tendrá en cuenta la definición de destrezas orales correspondientes al segundo perfil lingüístico realizada en el artículo 13 del Decreto 86/1997 (BOPV: 17-04-1997).

2.– Valoración del plan: hasta 30 puntos.

Con el fin de valorar el plan la Dirección de Planes de Euskera preparará un informe. Dicho informe tomará en cuenta lo siguiente:

- Asequibilidad de los objetivos que, partiendo de la realidad lingüística actual de la entidad, se proponen;
- Eficacia de las medidas que se proponen en el plan de gestión de 2005 para lograr dichos objetivos;
- Precisión en la descripción de dichas medidas;
- Idoneidad de los recursos humanos y económicos para llevar a cabo dichas medidas;
- Grado de afianzamiento del plan de euskera en la entidad; (objetivos generales del plan de euskera integrados en el plan estratégico o en el plan de gestión de la entidad; criterios lingüísticos de la entidad o bien procedimientos de gestión del euskera definidos y aplicados);
- Grado de cumplimiento o grado de uso alcanzado derivado del informe de evaluación del plan de gestión del año anterior.

La falta de eficacia o concreción en el plan anual de gestión podrá originar que la Comisión de Valoración rechace la solicitud.

3.– El número de trabajadores y trabajadoras que participan directamente en las acciones recogidas en el plan de gestión de la entidad de este año: hasta 20 puntos.

Se obtendrán más puntos cuanto mayor sea el número de trabajadores y trabajadoras afectados y cuanto más influencia ejerzan en la entidad.

4.– Porcentaje de personas bilingües en el municipio en el que está ubicada la entidad o, en su caso, la factoría de esa entidad. Para ello se utilizarán los datos recogidos en el último Censo de Población y Vivienda publicado por Eustat. Se obtendrán más puntos cuanto más personas bilingües haya. Hasta 10 puntos.

12. artikulua.– Lehen euskara-planetarako diru-laguntzak esleitzeko eta zenbatekoak finkatzeko irizpideak (2005. urtean plana garatuko ez dutenentzat soilik).

Balorazio-batzordeak 11. artikuluko 1) eta 4) irizpideak erabiliko ditu. 1) irizpidea 80 puntura arte eta 4) irizpidea 20 puntura arte.

Era honetako diru-laguntza eskerak aurreko artikuluan deskribatutako eskaerekin batera multzo bakarrean erabakiko dira.

13. artikulua.– Koordinazio-jardueretarako diru-laguntzak esleitzeko eta zenbatekoak finkatzeko irizpideak.

5.3.h paragrafoan aipatzen diren diru-laguntzei buruzko ebazpen-proposamena egiterakoan, Balorazio-batzordeak erabiliko dituen irizpideok hurrengoak izango dira:

- Jardueraren izaera
- Koordinazio-jardueran parte hartzen duten entitateen kopurua;
- Jardueraren iraupena;
- Jardueraren eraginkortasuna;
- Aurkeztutako txostenaren kalitatea.

Koordinazio-jarduerak balioesteko Euskara Planen Zuzendaritzak Balorazio-batzorderako idatzizko txostena prestatuko du. Txosten horrek irizpide horien arabera koordinazio-jarduerak 0 puntutik 50era balioetsiko ditu.

14. artikulua.– Diru-laguntza kopuruak eta mugak.

1.– 1.118.522 euroko guztizko zenbatekoa ondoren adierazten den eran banatuko da, entitate bakoitzari honako esleipen-mugak ezarritz:

a) Lehen euskara-plana: gehienez, 6.000 euro, entitateak Euskal Herriko lantokietan dituen langile kopuruaren arabera, honela:

– 100 langile arteko entitateen kasuan, gehienez 2.000 euro;

– 101 langiletik 500 langilera bitarteko entitateen kasuan, gehienez 4.000 euro;

– 500 langiletik gorako entitateen kasuan, gehienez 6.000 euro.

b) Itzulpenak: gehienez, 6.000 euro.

c) Batzarretako aldi bereko itzulpen-zerbitzua eta horretarako baliabideak erostea: gehienez, 3.000 euro.

d) Euskal hiztun diren langileen trebakuntza: gehienez 13.000 euro, guztira, matrikulak ordaintzeko.

e) Software-a: gehienez, 13.000 euro.

f) Plangintzaren jarraipena: gehienez, 13.000 euro, bileren eta batzordekideen arabera.

Artículo 12.– Criterios para la adjudicación y cuantificación del primer plan de euskera (exclusivamente para entidades que no van a desarrollar el plan en 2005).

La Comisión de Valoración utilizará los criterios 1) y 4) del artículo 11. Criterio 1) hasta 80 puntos; criterio 4) hasta 20 puntos.

Las solicitudes de este carácter se resolverán junto con las solicitudes del anterior artículo en un solo grupo.

Artículo 13.– Criterios para la adjudicación y cuantificación de las actividades de coordinación.

Al realizar la proposición de adjudicación del concepto recogido en el párrafo 5.3.h, la Comisión de Valoración utilizará los siguientes criterios:

- Carácter de las actividades.
- Número de entidades que han participado en las actividades de coordinación.
- Duración de las actividades.
- Eficacia de las actividades.
- Calidad del informe presentado.

Para la valoración de las actividades de coordinación, la Dirección de Planes de Euskera redactará un informe para la Comisión de Valoración. Dicho informe, aplicando los criterios arriba señalados, valorará las actividades de 0 a 50 puntos.

Artículo 14.– Cuantía y límite de las subvenciones.

1.– La cuantía global de 1.118.522 euros se repartirá, aplicando a cada entidad los límites que se determinan, de la siguiente manera:

a) Primer plan de euskera: máximo 6.000 euros, dependiendo del número de trabajadores que la entidad tenga en el País Vasco:

– Entidades de hasta 100 trabajadores, máximo 2.000 euros.

– Entidades de 101 a 500 trabajadores, máximo 4.000 euros.

– Entidades de mas de 500 trabajadores, máximo 6.000 euros.

b) Traducciones: máximo 6.000 euros.

c) Servicio de traducción simultanea y la compra de recursos para dicho servicio: máximo 3.000 euros.

d) Capacitación del personal vascohablante: máximo 13.000 euros en total para el abono de las matrículas.

e) Software: máximo 13.000 euros.

f) Seguimiento del plan: máximo 13.000 euros, en función del número de reuniones y miembros.

g) Plangintzaren ebaluazioa; gehienez, 2.000 euro, aurkeztutako txostenen arabera.

h) Koordinazio-jarduerak: gehienez, 13.000 euro.

2.– Artikulu honen 1d) eta 1f) pasarteetan jarritako mugak Euskal Herriko lantokietan bostehun langile edo gehiago duten entitateetan bi mila euroz igotzen dira; era berean, mila langile edo gehiago duten entitateetan lau mila euroz igotzen dira.

3.– Balorazio-batzordeak, esleipen-proposamena prestatu ondoren, entitate jakin bati esleitu behar zaion kopurua guztira 300 euro baino gutxiagokoa dela ikusiko balu, entitate horretarako proposamena bertan behera utziko da. Esleitu gabeko diru hori beste entitatei esleitzen zaiena gehitzeko erabili ahal izango da.

4.– Edozein modutan ere, Kultura Sailak deialdi honetara aurkeztu diren gastuak gehienez ere %70ean lagunduko ditu diruz.

15. artikulua.– Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok nahiz pribatuk helburu bertsurako eman ditzakeenkin, baldin eta agindu honetako diru-laguntzagaietan gain-finantzaketarik gertatzen ez bada. Gain-finantzaketarik gertatuz gero, diru-laguntza kopurua murriztu egingo da, diruz lagundutako egitasmoaren koste osoari gehienez dagokion diru-laguntzara arte.

16. artikulua.– Ebazpena.

1.– Balorazio-batzordearen ebazpen-proposamena ikusi ondoren, aurkeztutako eskaerei buruzko ebazpena emango du Hizkuntza Politikarako sailburuordeak. Horretarako, bost hilabeteko epea izango du eskabideak aurkezteko epea hasten denetik kontatzen hasita.

2.– Horretarako epea igaro ondoren ebazpenik jakinarazi ez bada, Herri-administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan begietatik ondorioetarako, interesatuek eskaerak ezetsi egin direla ulertu ahal izango dute, aipatutako legeak Administrazioari beren-beregi ebazteko ezartzen dion obligazioari kalterik egin gabe.

3.– Hizkuntza Politikarako sailburuordeak emandako ebazpena agindu honetan araututako diru-laguntzak jasotzeko eskabidea egin duen entitate bakoitzari jakinaraziko zaio. Horrez gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da emandako diru-laguntzen zerrenda, zabalkunde osoa izan dezan.

17. artikulua.– Onuradunak bete beharrekoa.

g) Evaluación del plan: máximo 2.000 euros, en función de los informes.

h) Actividades de coordinación: máximo 13.000 euros.

2.– Los máximos establecidos en los párrafos 1.d y 1.f de este artículo se incrementan en dos mil euros en el caso de entidades que tengan 500 trabajadores o mas en el País Vasco; en el caso de entidades de 1000 trabajadores o mas en el País Vasco dichos máximos se incrementan en 4.000 euros.

3.– Una vez preparado la proposición de adjudicación por parte de la Comisión de Valoración, si la cantidad a adjudicar a una entidad en total fuera inferior a 300 euros, la proposición de adjudicación para esa entidad se anulará. Esa cantidad sin adjudicar podrá ser utilizada para incrementar lo adjudicado al resto de entidades.

4.– El Departamento de Cultura no subvencionará más del 70% de los gastos correspondientes a las actividades presentadas a la convocatoria.

Artículo 15.– Compatibilidad con otras subvenciones o ayudas.

Las subvenciones previstas en la presente Orden son compatibles con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra institución pública o privada, siempre que de ello no derive la sobrefinanciación en el objeto de las ayudas previstas en la presente Orden. En caso de sobrefinanciación, se reducirá el importe de la subvención hasta el límite máximo que corresponda al coste total del programa subvencionado.

Artículo 16.– Resolución.

1.– La Resolución de concesión de las subvenciones previstas en esta convocatoria será dictada, a la vista de la propuesta elevada por la Comisión de Valoración, por el Viceconsejero de Política Lingüística en el plazo de cinco meses a contar desde el comienzo del plazo de presentación de solicitudes.

2.– Transcurrido dicho plazo sin que se haya notificado resolución alguna, los interesados podrán entender desestimadas las solicitudes a los efectos de lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de la obligación que la citada Ley impone a la Administración de resolver expresamente.

3.– Sin perjuicio de la notificación individualizada de la Resolución del Viceconsejero de Política Lingüística a los solicitantes de las subvenciones reguladas en la presente Orden, a los efectos de general conocimiento será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco la relación de las subvenciones concedidas bajo su amparo.

Artículo 17.– Obligaciones del beneficiario.

Agindu honetan araututako diru-laguntzen onuradunek honako betebeharrak hauek dituzte:

– Diru-laguntza onartzea. Diru-laguntza esleitzen duen ebazpena jakinarazten den egunean hasi eta ondorengo hamar egunetako epean diru-laguntzaren eskatzaileak berariaz eta idatziz uko egin ezean, diru-laguntza onartutzat emango da.

– Ebazpenean jaso den legez diru-laguntza izan duen jarduera burutu beharko dute bete-betean.

– Diru-laguntza zertarako eman den, hartarako erabili beharko da.

– Diru-laguntzadun jarduera edo egitarauak izandako gorabehera guztien berri ematea Euskara Planen Zuzendaritzari, indarreko legeriari jarraituz dagozkion doikuntzak egin ditzan, hala balegokio.

– Ekonomi Kontrolerako Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, nor bere eginkizunen alorrean, agindu honetako diru-laguntzei buruz eskatzen dioten informazio guztia ematea.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren diru-laguntzen jasotzaile orori jarritako betebeharrak guzti-guztiak.

18. artikulua.– Planaren jarraipena.

Planaren jarraipena egiteko Jarraipen-batzordea osatu ahal izango da. Batzorde hau diru-laguntza jasotzen duen entitatearen Zuzendaritzako ordezkarien eta Kultura Saileko Euskara Planen Zuzendaritzaren artean osatuko da. Jarraipen-batzorderako bilera-deia egitea Euskara Planen Zuzendaritzari dagokio, bilera urte bukarrera inguruan izanez. Aldez aurretik diru-laguntza jasotako entitatearen Zuzendaritzak Euskara Planen Zuzendaritzari jarraipen-txostena aurkeztuko dio aipatu bileran horren balorazioa egin dadin.

19. artikulua.– Diru-laguntzaren ordainketa.

1.– Diru-laguntzen ordainketa 20. artikuluan ezarritako agiriak jaso eta egiaztatu ondoren egingo da.

2.– Ordainketa egin ahal izateko, onuradunak zerga-zorrrak kitatuta dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua aurkeztu beharko du. Honekin batera, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak kitatuta dituela adierazten duen ziurtagiri eguneratua ere aurkeztu beharko du.

20. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa.

1.– Diru-laguntzaren justifikaziorako agiriak diru lagundutako ekintzak burutu ondoren aurkeztu behar-

Los beneficiarios de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir las siguientes obligaciones:

– Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de diez días a partir del siguiente a la recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención a las entidades beneficiarias, éstas no renuncian expresamente por escrito a la misma, se entenderá que la subvención queda aceptada.

– Desarrollo íntegro de la actividad para la que se ha reconocido la subvención, en los términos fijados en la resolución de concesión.

– Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida.

– Comunicar a la Dirección de Planes de Euskera cualquier incidencia en el desarrollo de la actividad o programa subvencionado, a fin de, en su caso, proceder a los ajustes oportunos conforme a la normativa vigente.

– Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

– Cuantas obligaciones estén establecidas con carácter general para todos los receptores de ayudas o subvenciones de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Artículo 18.– Seguimiento del plan

Se podrá constituir una Comisión de Seguimiento integrada por representantes de la Dirección de la entidad beneficiaria y de la Dirección de Planes de Euskera del Departamento de Cultura para realizar el seguimiento del plan de euskera. Dicha comisión se reunirá al final del año y será convocada por el Director de Planes de Euskera. Previamente, la Dirección de la entidad beneficiaria presentará a la Dirección de Planes de Euskera un informe de seguimiento para su valoración en la referida reunión.

Artículo 19.– Pago de la subvención.

1.– El abono de la subvención se realizará una vez recibidos y verificados los documentos exigidos en el artículo 20.

2.– Para la materialización del pago, la entidad beneficiaria deberá presentar certificado actualizado que acredite que se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y certificado actualizado que acredite que se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con la Seguridad Social.

Artículo 20.– Justificación de la subvención.

1.– Para la justificación de la ayuda concedida, las entidades beneficiarias deberán presentar la siguiente

ko dira edo, nolahi ere, 2006ko otsailaren 28a baino lehenago.

2.– Kasu guztietan gastuen jatorrizko fakturak eta bestelako justifikazio-agiriak edo Kultura Sailean egingandako horien kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira. Eskatzaileak esleitutako diru-laguntza osorik jaso ahal izateko diru-laguntzagai bakoitzean justifikatutako kopuruak bat etorri beharko du gutxienez esleitutako kopuruarekin. Entitateak aurkezten dituen faktura eta justifikazio-agiriok diru-laguntzako kontzeptuak espresuki jasoko dituzte.

3.– Diruz lagundutako kontzeptu bakoitzarengatik aurkeztu beharreko agiriak honako hauek dira:

a) Lehen euskara-plana: gastuen jatorrizko fakturak.

